

BEZEROEN SEGMENTAZIOA:

Gure bezeroak bi taldeetan sailkatzen dira. Alde batetik, enpresak eta bestetik lan egin gura debent ikasleak.

- **Eremu geografikoa:** Lehenengo urtean, Bizkaian aritzea da ideia. Baina, ikusten badogu arrakasta handia izaten daula Euskal Herri osoan hedatuko geunke,

- **Ezaugarri demografikoak:**
 - a) **Ikasleak:**
 - 16 eta 26 urte tarteko ikasleak.
 - Batxilergoan, lanbide heziketan eta unibertsitatean ikasten dabent ikasleak.
 - Edozein genero, arraza, klase sozial, etab.
 - Autonomia ekonomikoa bilatzen duena, proaktiboa....
 - Lanean ari diran hiru gaztetik batek aldi berean ikasten dau Espainian (% 32,3), Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA) azken datuen arabera. Bizkaian datuak oso antzekoak dira. Beraz, Bizkaian 146.000 gazte inguru badagoz eta %32,3k aldi berean ikasten eta lan egiten badau, gure helburua 47.000 lortzea izango litzateke.

 - b) **Enpresak:** Gugaz lan egin gura dauan edozein enpresa bizkaitarra. eta ordukako, jardunaldur murriztuko eta epe baterako langileen beharra dauana.

- **Baloreak:** Guretzat oso garrantzitsua da enpresek eta ikasleak daukien baloreak. Ez dogu lan egingo egokiak ez diran baloreak daukiezan enpresekaz, gure enpresarako kaltegarria izango baita. Beraz, genero desberdintasuna, arrazakeria, biolentzia, etab. ez dogu jasango. Bestalde, ikasleak nola bizi diran ez da garrantzitsua izango lan ona egiten badabe.